



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko irailaren 5ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko irailaren 5ean, arratseko zazpiak eta erditan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, IDIART Claudine, GOICOECHEA Iñaki.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : LEKUMBERRY Xantxo.

Deialdiaren eguna : 2023ko agorrilaren 31

Afitxatze eguna : 2023ko agorrilaren 31

3. ERABAKIA: AUTOKIDETZA GUNEAN OINEZKOENTZAKO BIDE BATEN ANTOLATZEKO DIRULAGUNTZA ESKAERA (7.10 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarkideei 918 departamenduko errepidean, autokidetza gune baten berrantolatzekeo proiektua oroitarazi die.

Izan ere, proiektuan izanen diren 30 lekuek gunearen antolaketa hobea ahalbidetuko dute.

Auzapezak zehaztu du, autokidetza eremuan oinezkoen segurtasuna bermatzeko oinezkoentzako bide bat egin behar dela.

Auzapezak proposatu du, Pirinio Atlantikoetako kontseiluari polizia isunen Zuzkidura deituriko segurtasun antolamenduen egiteko dirulaguntza eskatzea.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- ONARTU DU, aurkeztu zaion oinezkoen bide proiektua,
- Polizia isunen Zuzkidura deitu dirulaguntza ESKATUKO DIO Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluari,
- AURREIKUSIKO DITU, Herriaren aurrekontuetan, lan horien osoki egiteko beharrezkoak diren kredituak,
- BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari ekintza horren burura eramateko beharrezkoak diren neurrien hartzeko eta agiri oro izenpetzeko.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 11
Balizko boz kopurua : 11
ALDE : 11
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2023ko irailaren 5ean

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/09/08an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/09/08an.